



BILBOKO ARATUSTEAK

2020KO ARATUSTEETAKO MOZORRO LEHIAKETA

1. Bilboko Udaleko Jaietako Batzorde Mistoak mozorrorik onenak sarituko ditu 2020ko otsailaren 22an (Aratuste-zapatua). Lehiarik gabeko ikuskizuna da eta honako hauek sarituko dira: partaidetza, originaltasuna, elkarreragina eta mozorroek daukaten Aratusteetako kutsua.

2. Baldintza hauek betetzen dituen edonork (gizabanakoak, taldeak edo konpartsak) jaso dezake saria:

- Jaigunera mozorrotuta joatea eta mozorroen arratsaldeko kalejiran parte hartzea. Kalejira 17:00etan hasiko da Plaza Biribilean eta ibilbide hau izango du: Kale Nagusia – Astarloa – Colon de Larreategui – Albia.
- Epaimahaiaren aurrean, (Astarloa), zein kontrol puntuetan minutu bateko (gehienez) dantza edo performancea aurkeztu behar izango da.

3. Izen-ematea otsailaren 14a (ostirala), baino lehenago bidaliko da bulegoa@bilbokokonpartsak.eus helbide elektronikoaren bidez, edo sariketaren egun berean 16:00 eta 16:30 bitartean, Plaza Biribileko eszenatokian.

Izena emateko bidali beharreko informazioa:

- PARTE-HARTZAILEAREN IZENA
- MOZORROAREN IZENA
- MOZORROAREN DESKRIBAPENA
- TELEFONO / IZEN KONTAKTUA
- MUSIKA* (mp3/wav fitxategia)

*Musika ez bidaltzekotan, edozein kanta aleatorio jarriko da. Ez da azken momentuko musikarik onartuko.

4. Jaietako Batzorde Mistoak izendatuko duen epimahai bakarra egongo da, janzkietan eta arte eszenikoetan adituak diren eta Bilboko elkar-teen sarean sartuta dauden pertsonak osatua.

Astarloako eszenatokian jarriko den epimahaiak mozorroak aztertuko ditu 1. puntuazaldutako lehiarik gabeko irizpideen arabera eta saria merezi duten mozorroak aukeratuko ditu.

Gainera, lehenengo atalean aipatutako balore ez-lehiakorrek bultzatu nahian, ibilbidean zehar, Bilboko Konpartsen banderaz markatutako bi gune egongo dira. Hauetan parte-hartzaileak animatzen ditugu, epaimahaiarentzako prestatutako koreografia antzeztan (minutu bat baino ez)

Saria lortzeko, aipatutako bi guneetan eta ibilbide osoan zehar, adierazitako jarrera kontuan hartuko da.

5. Sariketan gertatzen diren gorabehera guztiak ebazteko ahalmena edukiko du epaimahaiak. Hala ere, sariketaren oinarriak aldatu ahal izateko antolatzaileen baimena beharko da.

6. Kategoría eta sari-multzo hauek ezarri dira, honako balioa daukatenak (*):

| <u>BANAKAKOAK</u> | <u>TALDEAK</u> | <u>KONPARTSAK</u> |
|-------------------|----------------|-------------------|
| 1. 175 € | 1. 500 € | 1. 500 € |
| 2. 125 € | 2. 300 € | 2. 300 € |
| 3. 100 € | 3. 200 € | 3. 200 € |

(*) Fruitu edo jenero ludiko eta gastronomikoa.

7. Zein-nahi kategoriatako saria jasotzeko ezinbestekoa da 21:00etan aurkeztea Plaza Barriko eszenatokian. Ekitaldi horretara ez aurkezteak sariari uko egin zaiola esan nahi du.

8. Lehiaketan izena-ematean baimena ematen zaie antolatzaileei mozorrotutako pertsonaren irudia erabiltzeko.

9. Lehiaketan izena-emateak oinarriak oso-osorik onartzea dakar. Antolatzaileek oinarri hauek aldatzeko eskubidea dute.